



PRENTSA PROTOKOLOA/OHARRAK

Antolatzaileek kazetariei eskatzen diete ondoko argibideak kontuan hartzeko

- Antolakuntza arduradunen argibideak denok gure lana ahalik eta ondoen egin ahal izateko dira.
- Antolakuntzako kideen jarraibideei kasu egin eta libre utzi adierazitako gunea.
- Ezeren aurretik, errespetua korrikalariei.
- Ezinbestekoa da akreditazioa ikusgai edukitzea.

1- EZ TRABARIK EGIN.

- Ez korrikalariei ezta beste medioei ere. Gunean gauden guztiok errespetatu beharreko segurtasun eta erosotasun neurriak daude.
- Medio grafikoek -emanaldi jarraiarako akreditatuak izan ezik- lehen emakumezkoa heldu arte izango dute euren lana bertan egiteko aukera, ondoren joan egin beharko dute eta antolakuntzako kideek esandakoari kasu egin. Peto batekin identifikatuko dira, eta ezinbestekoa izango da jantzita eramatea argazkiak ateratzeko gunean egoteko. Behin lana bukatuta, petoa VIP karpan itzuliko da.
- Medio idatziek euren lana egiten utzi egin behar diote medio grafikoei. Ez du zentzurik idatzizko kazetariak helmugan izatea. Korrikalariak nekatuta iristen dira eta prentsa gunean (VIP karpa) jaramon egin eta zuen galderei erantzungo diete behin aldatu eta hidratatuta.
- Ezin dira kamerak argindar-sarean konektatu. BATERIA BIDEZ ELIKATU BEHAR DIRA.

2- BABESTU pertsonen intimitatea eta duintasuna -ez grabatu irudi labainik- zorabiatutako korrikalariak, mediku artatzeak etb. **DEBEKATUTA** dago osasun-guneetan zein erreserbatuetan sartzea eta grabatzea. Saihestu sensazionalismoa eta alarma, bereziki, zoritxarreko gertakarietan. Eragindako pertsonak eta bere familiak erabateko lehentasuna dute eta agintari eskudunek erabakiko dute zeintzuk diren zabaltzeko informazio mota eta une egokiak.

3- SARI BANAKETEN ordutegia (Boulevard-eko kioskoan)

- Gupil aulkiak y Handbikeak:.....10:40
- Patinatzaileak:.....11: 00
- Absolutuak:.....12: 00
- 1. Gizonezko eta emakumezko gipuzkoarrak
- 1. Gizonezko eta emakumezko beteranoak

Elkarrizketa-gune bat jarriko dugu VIP karpan, gizonezkoen kategoriako lehen 3 sailkatuak eta emakumezkoen kategoriako lehen 3 sailkatuak elkarrizketatu ahal izateko.

***Antolakuntzak eskubidea du egoki deritzon neurriak hartzeko jarraibide hauek betetzen ez dituen medioaren edo pertsonaren aurka.**